

LEHENENGO HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B1 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

[A eredua]

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **1h 50 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira. • Hiru irakurgai eta guztira 25 galdera. Balio berekoak (0,8 puntu). Gainditzeko, 13 erantzun behar dira zuzen. Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. • Testuen luzera guztira: 1.000 hitz gehienez. 	50 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira. 	60 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan**.
- Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zuzen da**.

1. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderei.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

EMAKUMEAK ETA MARATOIA

Bostonen, 1966ko apirilaren 19an, Bobbi Gibb, 23 urteko neska gaztea, maratoiaren irteeraren inguruko zuhaitz batzuen atzean ezkutatu zen, nebaren elastikoa eta txanodun jertsea jantzita. Munduko maratourik ezagunena abiatu zenean, Bobbi zain egon zen. Gutxi gorabehera korrikalarien erdiak ondotik pasa zirenean, zuhaitzetatik atera zen eta orduan hasi zen bera korrika. Gibbek otsailean Bostongo maratoiko antolatzaileei gutun bat bidali zien lasterketan izena emateko, baina lasterketako zuzendariak erantzun zion emakumezkoak ez zirela maratoia egiteko kapaz. Gibbek bi urte zeramatzan entrenatzen eta 60 kilometroko saioa egin zuen, nahikoa eta sobera maratoia (42 km eta 195 m) lasai egin ahal izateko.

Alboan zituen korrikalariak berehala konturatu ziren Gibb emakumea zela, eta haien babeslagun, nebaren jertsea kendu ahal izan zuen. Hiru ordu, 22 minutu eta 40 segundoan iritsi zen helmugara, ikusle eta korrikalari gehienek txalo artean. Gaur egun, *Boston Athletic Association* erakundeak, Bostongo maratoia antolatzen duen erakundeak, onartzen du Bobbi Gibb izan zela maratoia egin zuen lehen emakumea, baina orduan haren balentria keinu sinboliko hutsean geratu zen.

Hurrengo urtean, oraindik ere emakumeentzat maratoia egitea debekatuta egon arren, Gibbek berriro hartu zuen parte lasterketan, aurreko urteko antzeko marka lortuz. Baina, orduan, ez zen emakume bakarria izan; Gibb iritsi eta ordubete ingurura, Kathrine Switzerrek helmugako marra zeharkatu zuen 261. zenbakidun dortsala soinean zeramala. K. V. Switzer inzialak erabiliz eman zuen izena, eta antolatzaileek ez zuten jakin emakumea zela lasterketa abiatu arte. Orduan, maratoiaren bosgarren kilometroa bete baino lehen, lasterketako epaile bat jarri zitzaion ondoan, maratoia uzteko esanez, eta Switzerrek kasurik egin ez zionez, epaileak gerritik heldu zion gelditzeko asmoz. Tom Miller mutil-laguna ondoan zuen eta epailea bultzaka kendu zuen ondotik. Gero, hainbat korrikalarik babestuta, egin ahal izan zuen emakumeak gainerako bidea.

Dorsal ofizialak ez zion ezertarako balio izan Switzerri, lasterketako epaileek deskalifikatu egin zuten eta. Baina bosgarren kilometroko gertakizunaren argazkia mundu osora zabaldu zen. Aurreko urtean bizpahiru egunkarik Gibben berri eman zuten bitxikerien atalean, baina ez zuen inolaz ere lortu Switzerren argazkiak izan zuen oihartzuna. Gertaera horrek indar handia eman zion emakumeek maratoietan parte hartzearen aldeko borrokari. Eta, hala ere, beste bost urte beharko zituzten helburu hori lortzeko. 1972ko Bostongo maratoian emakumeei parte hartzeko eskubidea onartu zitzaion lehenengoz, eta beste hamabi urte beharko ziren emakumezkoen maratoia Joko Olinpikoen proben zerrendan egin ahal izateko.

IRAZUSTABARRENA, N. *Argia*. 2014ko apirilaren 20a. Egokitua

1. ariketa. Aukeratu erantzuna

1. Nola hasi zuen Gibbek 1966ko maratokia?

- a) Azken korrikalarien artean ezkutatuta.
- b) Ezkutuan, maratoiaren irteeratik hurbil.
- c) Beste korrikalariekin batera, nebaren arropak jantzita.

2. Zer erantzun zion lasterketako zuzendariak Gibbi?

- a) Emakumeak ez zirela gai maratokia egiteko.
- b) Gizonek baino ez zutela parte hartzen.
- c) Urte batzuetan entrenatu beharko zuela parte hartzeko.

3. Zergatik zekien Gibbek Bostongo maratokia egin ahal zuela?

- a) Entrenamenduetan distantzia handiagoa egina zuelako.
- b) Lehenago beste maratoki bat egina zuelako.
- c) Maratoiaren distantzia bi urtean 60 aldiz egina zuelako.

4. Zer gertatu zen Gibbek maratokia bukatu zuenean?

- a) Maratokia egin zuen lehen emakumea zela onartu zutela.
- b) Egin zuen marka onartu zutela antolatzaileek.
- c) Bere balentria ez zela ofizialki onartu.

5. Zergatik eman zioten dortsala Switzerri?

- a) Gizon baten izena erabili zuelako.
- b) Izenaren inisialak erabilia gizontzat hartu zutelako.
- c) Urte hartan ez zegoelako emakumeentzako debekurik.

6. Zer gertatu zitzaion Switzerri bosgarren kilometroa bete aurretik?

- a) Epaille batek gelditu nahi izan zuela eta besotik hartu zuela.
- b) Epaille bat bultzatu behar izan zuela maratolian segitzeko.
- c) Bere mutil-lagunari esker jarraitu ahal izan zuela lasterketa.

7. Zer gertatu zen Switzerrekin maratokia bukatu zenean?

- a) Bere kasuak Gibbenak baino ospe handiagoa izan zuela.
- b) Dorsal ofizialari esker onartua izan zela bere marka.
- c) Deskalifikatu egin zutela epailea jotzeagatik.

8. Zertarako balio izan zuten Gibben eta Switzerren kasuek?

- a) Hurrengo urteko Bostongo maratolian emakumeak onartuak izateko.
- b) Maratobietan emakumeen parte-hartzeari bultzada emateko.
- c) Hurrengo Joko Olinpikoetan emakumeen probak antolatzeko.

2. ariketa

Irakurri ondorengo testuak. Hurrengo orrian esaldi batzuk dauzkazu. Esaldi bakoitza testu bati (A, B edo C) dagokio.

Lotu esaldiak eta testuak.

A BERMEOKO *FOOD TRUCK* AZOKA

Bermeon lehenengo aldiz *Food Truck Market* ekimenaz gozatzeko aukera egongo da asteburu honetan. Ekimen gastronomiko berri honen bitartez, hainbat motatako janariak eskainiko dituzten 10 ibilgailu-taberna batuko dira Bermeon eta, horrez gain, kontzertuak eta bestelako ekintzak egongo dira giro onean.

Bermeoko alkateak, Turismo bulegoko arduradunak eta *Tangram* enpresako kideek aurkeztu dute ekimen hau gaur prentsurrekoan. Bertan, azaldu dutenez, asteburuan Bermeora hurbiltzen diren guztiek era askotako jatekoak dastatzeko aukera izango dute, besteak beste, odolosteak, hanburgesak eta kroketak. Azoka larunbatean eta igandean goizeko 12:00etatik goizaldeko 00:00ak arte izango da, eta Alde Zaharra indartzeko eta biziberritzeko pausu berria da.

<www.bermeo.eus>. Egokitua

B ARRIGORRIAGAKO *FOOD TRUCK* AZOKA

Udaletxeko plazan *Food Truck* azoka egongo da asteburuan. Bertan, batez ere, furgoneta gastronomikoak egongo dira, baina beste zenbait ekintza ere antolatuko dira herritarrek gozatzeko. Egokitutako hamabi ibilgailu etorriko dira eta plater anitz eskainiko dute, besteak beste, hanburgesak, saltxitxa-ogitartekoak, tex-mex janaria, itsas tapak, Italiako jakiak eta kroketak. Bestalde, aisialdirako askotariko eskaintza egongo da: sukaldaritzako zuzeneko erakustaldiak eta dastatzeak, kontzertuak eta moda-erakusketak.

Udalak iaz antolatu zuen azoka original hau lehenengo aldiz, Bizkaiko beste udalerrri batzuetan izan zuen arrakasta ikusita. Ostiralean hasiko da eta 18:00etatik 00:00etara egongo da irekita, larunbatean eguerditik gauerdia egongo da irekita eta igandean 12:00etatik 22:00etara.

<www.arrigorriaga.eus>. Egokitua

C PLENTZIAKO *FOOD TRUCK* AZOKA

Ostiral arratsaldean hasi eta astelehenera bitartean prestatutako janaria saltzen duten furgoneten azoka egongo da Plentziako Astillero plazan. *Food Truck Market* delakoa 18:00etan zabalduko dute eta astelehenera arte jaki ezberdinak probatzeko aukera eskainiko dute furgoneta-sukaldeek. Azoka dagoen bitartean musika-emanaldiak, hitzaldiak, umeentzako jolasak eta dastatze-ekitaldiak ere egongo dira.

Plentziako Udalak garraio publikoa erabiltzea gomendatu die azoka-egun hauetan herrira hurbilduko direnei, egon daitezkeen aparkatzeko arazoei aurre egiteko.

<www.plentzia.org>. Egokitua

2. ariketa. Lotu esaldiak eta testuak

9.	Orain arte ez dute inoiz herrian horrelakorik egin.
10.	Azokarik luzeena izango da, lau egunekoa baita.
11.	Alkateak ekimenaren berri eman du gaur.
12.	Larunbatean eta igandean baino ez da izango azoka.
13.	Beste herrialde batzuetako janaria eskainiko dute.
14.	Umeentzako ekintzak ere prestatu dituzte egun horietarako.
15.	Udalak autoa ez erabiltzea gomendatzen du azokara hurbiltzeko.
16.	Beste udalerrri batzuetan eduki zuen arrakasta izan zen antolatzekeo arrazoi bat.

A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C
A	B	C

3. ariketa

Elkarrizketa bat irakurriko duzu. Testuan, kazetariak egindako galderak falta dira. Hurrengo orrian dituzu galderak. **Lotu galderak eta erantzunak.**

Markatu testuko hutsuneak (18, 19, 20...) betetzeko zein diren galdera egokienak (A, B, C...).

Galdera bat sobera dago.

D'ALBENIZ MAGOA

Umetatik gustuko izan du magia Perez de Albeniz ilusionista gasteiztarrak. Orain, taula gainera egin du salto, eta D'Albeniz ilusionista du izen artistikoa. Joan den hilabetean, Europako Magia kongresuan, hirugarren postua eskuratu zuen manipulazioan.

17

Izena lortzeko balio dute. Halako erreferentzia lista bat sortzen da irabazleekin. Izan ere, magia erakustaldiak antolatzen dituztenek sailkapenetan begiratzen dute nor kontratatu. Baina mago on asko daude saririk ez daukatenak.

18

Aita ere magoa izan zenez, txikitatik bizi izan dut Gasteizko nazioarteko magia festibala (Magialdia). Han ikusi nuen Pilou mago frantsesa, manipulazio ikuskizun batean, eta aitari esan nion nik horixe egin nahi nuela. Eta horretan nabil orain.

19

Nire kontura hasi nintzen. Teknika batzuk probatu nituen eta Youtubeko bideoak ikusi. Gaur egun denetarik dago sarean. Magian hasten zarenean, denetarik egin nahi duzu; baina magiaren alor bat aukeratu behar duzu, eta horretan espezializatu.

20

Nire irribarreak eta bekainekin egiten dudak keinuek bereizten nautela esan didate. Hala ere, zaila da zehaztea zer den berezi egiten nauena. Magiaren mundua oso konplexua da, polemika asko egoten dira.

21

Bekaizkeria eta kritika asko daude. Ohikoa da mago batek beste bati leporatzea zerbait berak egin zuela eta kopian egin diola.

22

Eszenario gainean egoten den pertsonaia ni naiz goitik behera. Naizen modura azaltzen dut neure burua eszenarioan.

23

Natural jokatuta. Magia munduan, naturala ez dirudiena susmagarria da. Nahi dudana egiten dut ikuskizunean. Serio jartzen banaiz, nahi dudalako jartzen naiz; barre egiten badut, nahi dudalako egiten dut.

24

Entseguak eginez behin eta berriz. Ahalik eta ordu gehien pasatu behar dituzu saioa prestatzen. Nire ikuskizuna sortzeko, egunak pasatu ditut lau orduz lanean.

25

Ingeniari batek fisika eta matematika landu behar ditu, bere lanerako beharrezkoak dituelako. Artista izateko, antzezpena edo magia beharko dituzu, adibidez. Jendeak ez du ulertzen. Askotan galdetu didate ea ikasteari utziko diodan. Ez. Izan nahi dudana izateko ikasi beharrekoak ikasiko ditut.

ALBERDI, B.

Berria, 2017ko martxoaren 8a. Egokitua

3. ariketa. Lotu galderak eta erantzunak

- A. Zerk egiten du berezi D’Albeniz?
- B. Magiaz gain, arte gehiago ikasi behar dituzue magoak?
- C. Nondik etorri zaizu magiarako zaletasuna?
- D. Nolakoa da ikuskizunetan D’Albeniz magoa?
- E. Zer material erabiltzen duzu zure ikuskizunetan?
- F. Sariak eragina al daukate magoen ibilbidean?
- G. Mundu horretan badago polemikarik?
- H. Nola lortzen duzu horrenbeste jenderen aurrean zu izatea?
- I. Nola ikasi duzu mago izaten?
- J. Nola prestatzen duzu magia ikuskizun bat?

■ Idatzi zenbakiari dagokion letra ondoko laukietan:

Hutsuneak	17	18	19	20	21	22	23	24	25
Galderak									

Soberakoa

Soberako aukera hau ez da jaso behar erantzun-orrian.

Oharrak

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- **Emandako informazioa ezin duzu hitzez hitz kopiatu.**
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten: **ez da zuzenduko irakurri ezin denik.**
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Ez jarri zure izen-abizenik; **asmatu izenpea anonimotasuna bermatzeko.**
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - Eskatutako guztiari erantzun diozun.
 - Ideiak garbi adierazi dituzun.
 - Euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna edota aberastasuna.

**ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.
EGIN ARIKETAK HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN.**

1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta **inprimakia** bete behar duzu.
Gutxienez 50 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA: Udalak herriko gazteek ikasi ahal izateko gela bat jarri du zure etxe azpian. Horrek hainbat arazo sortzen dizu: zikinkeria, zarata...

Udaletxera joan zara kexa ipintzera eta inprimaki bat eman dizute. Azaldu ezazu zer arazo duzun eta eskatu zein izan daitekeen konponbidea.

2. ariketa

Gaia kontuan hartu eta aparteko orrian dagoen **leihoa** bete behar duzu.
Gutxienez 100 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA: Herriko udal haurtzaindegiko langilea zara. Herritar batek mezu bat bidali dizu informazioa eskatzeko.

■ Hauxe da jaso duzun mezua:

Idatzi mezua

Bidali Gorde Baztertu

Norentzat: Haurtzaindegiko arduraduna

[Gehitu Cc](#) | [Gehitu Bcc](#)

Gaia: Informazio eske

[Erantsi fitxategia](#)

B *I* U **F** **rT** **T** [« Testu arrunta](#) [Egiaztatu ortografia ▼](#)

Kaixo:

Isabel naiz eta duela gutxi etorri naiz herrira bizitzera. Ume txikia daukat eta datorren urterako herriko haurtzaindegian matrikulatu nahi dut, baina ez dakit zer egin behar dudan horretarako.

Mesedez, niretzat baliagarria izan daitekeen informazioa idatziz emango didazu? Adibidez, honi buruzkoa: matrikulazioa, dokumentazioa, haurtzaindegia zerbitzuak...

Zure erantzunaren zain geratzen naiz.

Isabel

■ Erantzun iezaiozu herritarrari.

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

■ **1. ariketa:** aukeratu erantzuna.

■ **Irakurgaia:** «EMAKUMEENTZAT SEI URTE IRAUN ZUEN MARATOIA»

1.	B	2.	A	3.	A	4.	C
5.	B	6.	C	7.	A	8.	B

■ **2. ariketa:** lotu esaldiak eta testuak.

■ **Irakurgaia:** «FOOD TRUCK AZOKA»

9.	A	10.	C	11.	A	12.	A
13.	B	14.	C	15.	C	16.	B

■ **3. ariketa:** lotu galderak eta erantzunak.

■ **Irakurgaia:** «D'ALBENIZ MAGOA»

Hutsuneak	17	18	19	20	21	22	23	24	25
Galderak	F	C	I	A	G	D	H	J	B

Soberakoa	E
-----------	---